Vigilancia de la Salud

LA VIGILANCIA DE LA SALUD DEBE SER:

- Garantizada por el empresario restringiendo el alcance de la misma a los riesgos inherentes al trabajo.
- Específica en función de los riesgos identificados en la evaluación de riesgos.
- Voluntaria para el trabajador, salvo tres excepciones.
- Confidencial dado que el acceso a la información médica derivada de la vigilancia de la salud de cada trabajador se restringirá al propio trabajador, a los servicios médicos responsables de su salud y a la autoridad sanitaria.
- Ética con el fin de asegurar una práctica profesional coherente con los principios del respeto a la intimidad, a la dignidad y la no discriminación laboral por motivos de salud.
- **Prolongada** en el tiempo, cuando sea pertinente, más allá de la finalización de la relación laboral, ocupándose el Sistema Nacional de Salud de los reconocimientos post-ocupacionales.
- Contenido ajustado a las características definidas en la normativa aplicable. Para los riesgos que no hayan sido objeto de reglamentación específica, la Ley de Prevención de Riesgos Laborales no específica ni define las medidas o instrumentos de vigilancia de la salud, pero sí establece una preferencia por aquellas que causen las menores molestias al trabajador, encomendando a la Administración Sanitaria el establecimiento de las pautas y protocolos de actuación en esta materia.
- El contenido de los <u>reconocimientos</u> incluirá, como mínimo, una historia clínico-laboral, donde además de los datos de anamnesis, exploración física, control biológico y exámenes complementarios, se hará constar una descripción detallada del puesto de trabajo, del tiempo de permanencia en el mismo, de los riesgos detectados y de las medidas de prevención adoptadas.
- Realizada por personal sanitario con competencia técnica, formación y capacidad acreditada.
- Documentada con la constatación de la práctica de los controles del estado de salud de los trabajadores, así como las conclusiones obtenidas de los mismos.
- Informando individualmente a los trabajadores tanto de los objetivos como de los métodos de la vigilancia de la salud, que deben ser explicados de forma suficiente y comprensible a los trabajadores, así como de los resultados.
- Gratuita y dentro de la jornada laboral con el descuento del tiempo invertido en la misma.
- Realizada con los recursos materiales adecuados.

Osasun Zaintza

OSASUN ZAINTZAK IZAN BEHAR DU:

- Enpresaburuak bermatutakoa, zaintzaren esparrua lanaren arriskuetara mugatuz.
- **Berariazkoa** arriskuen ebaluazioan identifikatutako arriskuen arabera.
- Borondatezkoa langilearentzat, hiru kasutan izan ezik.
- **Isilpekoa**, langileak berak, haren osasunaren ardura duten zerbitzu medikoek eta osasun-agintariek baino ez baitute eskuratu ahalko langile bakoitzaren osasun zaintzatik eratorritako informazio medikoa.
- **Etikoa** intimitate, duintasun eta osasun arrazoiengatik lanean diskriminatua ez izateko eskubideekiko errespetuaren printzipioekin koherentea den jokabide profesionala ziurtatzeko.
- Denboran **iraunkorra**, beharrezkoa denean, lan-harremana bukatutzat ematen den unetik harago. Osasun Sistema Nazionala arduratuko da lan harremanaren ondorengo azterketez.
- Arau aplikagarrietan definitutako ezaugarriei egokitutako edukia. Berariaz arautu gabeko arriskuetarako, Lan Arriskuak Aurreikusteko Legeak ez ditu definitzen osasun-zaintzako neurriak edo tresnak, baina lehenetsi egiten ditu langileari eragozpen txikienak sortzen dizkionak, eta Osasun Administrazioari agintzen dio gai honetan jardun dezala protokoloak eta jarraibideak ezartzeko.
- <u>Azterketen</u> edukiaren barruan sartuko da, gutxienez, arlo klinikoko eta lan arloko historia bat, non, anamnesi, ikuskapen fisiko, kontrol biologiko eta azterketa osagarrien datuez gain, zehaztasunez deskribatuko baitira lanpostua, lanpostu horretan emandako denbora, atzemandako arriskuak eta hartutako aurrezaintza-neurriak.
- Ahalmen teknikoa, prestakuntza eta gaitasun ziurtatua duen osasun-langileek egina.
- Dokumentatua langileen osasun egoeraren kontrolak egiten direla egiaztatuz, bai eta haien emaitzak ere.
- Langileei banan-banan emanez bai helburuei buruzko informazioa eta bai osasun zaintzaren metodoei buruzkoa, zeinak behar bezala eta modu ulerkorrean azaldu behar baitzaizkie langileei, eta baita emaitzei buruzko informazioa ere.
- Doan eta lanaldiaren barruan edo zaintzan emandako orduak kenduta.
- Baliabide material egokiekin.